

Hernani Txinan...

... eta TXINA HERNANIN esango duzue askok eta askok. Bai egia da, Ekialdeko herriarren bisita ugaritu egin da gure herrian azken urte hauetan. Ditxosozko globalizazioa ote? Hala izango da... eta globalizazio horrexek berak eraman du Txinara Gorka Gomez Makazaga. Lanak, sukaldaritzak hain zuzen ere, eraman du 33 urteko hernaniarra Txinara, "etorkizuneko herrialdera".

Bi alditan eraman du sukaldaritzak hain urrutiko Gorka. Lehengo aldian, 2000. urtean, Pekinera joan zen; bi urte egin zituen ordukoan. Orain, berriz, hainbat hilabete darama Da-Lianen. 6 urte pasa dira lehengo aldiz joan zenetik, eta gauza bat du argi: "Txinan gauzak dezente aldatu dira".

Luis Irizarren Sukaldaritzako Eskolan ikasi zuen, eta eskolak berak zabaldu zizkion Txinarako ateak. Hori bai, Euskal Herrian ere aritua da sukaldari lanetan: Irungo Brasil Gozotegian, Astelehena jatetxean, bitan, Ashanti Jatetxean, Hernanin Gadafin, Inaxio Ayerbe bere lehengusuarekin batera, eta nola ez, Onyi Tabernan, arrebarekin. Azken urratsak Donostiako Ikamika Tabernan egin zituen eta Ikamikatik berriro Txinara, Da-Lian hiriko jatetxe batera.



Guk Da-Lianen harrapatu dugu lanean, eta interneti esker, elkarrizketa hau egiteko modua izan dugu. Ezagutu dezagun, bada, Gorka Gomez Makazaga eta bere txinatar esperientzia.

Gorka, zer du Txinak zu lau alditan (bi lanera eta beste bi zure kasa) joateko?

Lanari dagokionez, guztiz bestelakoa da, eta interesgarria. Gauza ugari ikas daiteke, eta ez bakarrik nire lanari buruz, lan egiteko moduari buruzkoak oro har. Bestalde, lagun oso onak egin nituen bertan egon nintzen lehen aldian, eta oso ondo pasa nuen, bisitan etortzea erabaki nuen. Noski, behin joanda ezin duzu Txina guztia ikusi, herrialde hau handia da oso eta dezente dago ikusteko, eta nire lehenengo aldian lanean nengoenez, ez zen hain erraza bidaiatzea, nahiz eta bidaia batzuk egin nituen, hori izan da, lanaz aparte, Txinara beste bitan joateko arrazoiak.


Lanean zauden bigarren aldia duzu oraingoa, tartean 3 urte pasa dira, asko aldatu al dira gauzak "Etorkizunaren mundua" deitzen zaion herrian?

Bai, dezente aldatu dira. Gertatzen dena da bertan egonda aldaketa ez duzula hain azkar ikusten. Gauza

sofistikuak eta oso antzinakoak ikusten dira denak batera; ez da erraza azaltzen nolakoa den eta zer izango den. Txina herrialde bezala martxan jarri den "makina" handia da, eta abiadura ikaragarria da.

Aurreko aldian Pekinen eta orain Da-Lianen zauden, ipar-ekialdean, Koreatik gertu... oso leku ezberdinak al dira?

Bai, bat Madrilekin konpara daiteke, esan nahi dut Txinako gobernuaren bertan dagoelako, munduko herrialde guztietako enbaxadak, turista asko, jendea, masifikazioa hitz batean. Hiri erraldoia da Pekin, hiriburua azken finean, eta bertan dagoen mugimendua ikaragarria da. Da-Lian, berriz, Donostiarekin aldera daiteke. Itsasoa du, turistikoa da, dirudun turismoa etortzen da Da-Lianera, lasaiagoa da eta polita da, oso polita. Eta ez dut esan, baina kutsadurari dagokionez, bi hiriek ez dute zerikusirik; Da-Lian garbia da oso, eta Pekinen, berriz, kutsadura ikaragarria da.



Da-Lianeko ezaugarrietako bat "mariskoa" da, oso kalitate onekoa da. Txinako leku askotara bidaltzen dira Da-Lianeko itsaskiak, eta baita atzerriera ere; izen handia dute hemengo itsaskiek. Beraz, Txinan oso ezaguna da Da-Lian hiria itsaskiengatik, esan bezala, eta baita Txinako futbol talde onenetakoa bertakoa delako.

Modak ere badu bere lekua Da-Lianen. Nazioarteko ekitaldi garrantzitsua egiten da hiri eder honetan. Ikusten duzue, oso leku erakargarria da. Paisaia-ri dagokionez, oso polita da, eta txinatar asko ez kontzako argazkiak egitera etortzen dira.

Futbol talderik onena Da-Lianekoa dela esan du-gu, jakin-minagatik, zer izen du? Futbol zale asko al dago?

Dalian futbol taldea da bertakoa. Txinan ez dago futbol zale asko, ala guk uste baino gehiago. Ezin da Europan dagoen zaletasunarekin alderatu, baina afizioa badute, handia gainera. Gertatzen dena da Txinako futbol maila ez dela oso ona, mundu mailan behintzat, ez da kontuan hartzen futbola. Pixkanaka ikusten da Txinako futbolarien bat edo beste atzerrian jokatzeko, eta kontrakoa ere gertatzen da, alegia, atzerriko futbolariak Txinako Ligan.

Gaztelaniaz bada "Trabajas más que un chino" dioen esapidea, egia ala mito?

Esapide horrek badu nolabaiteko funtsa, baina azalpena behar du. Produktzio aldetik ez da zaila beraiek baino gehiago produzitzea, baina pazientzia handia behar da beraiek baino gehiago lan egiteko. Egun osoz aritzen dira lanean. Lan ordutegi bukaezinak dituzte. 24 orduz lan egiten duten lantoki asko dau- de. Baina hau ere pixkana arautzen ari dira, alegia,

lan ordutegiak arautzen ari dira eta ordutegi amaie- zin horiek murrizten hasi dira. Batere atsedetik ez dutenak autonomoak edota beren negozioak dituz- tenak dira.

Ohartzen al dira gaur egun Europan duten era- ginaz?

Bai horren jakitun daude. Txinatarrentzat gainera, beraiek dira munduaren zilborra, alegia, lehenengo beraiek, bigarren beraiek eta hirugarren ere be- raiek. Egia da noizbait entzun dieldala esaten "egu- nen batean mundua beraien esku egongo dela" gaur egun Estatu Batuek duten boterea lortu nahi dute, eta egia esatea nahi baduzue, halakorik ez gertatzea espero dut. Atzerriko herrialdeetatik da- torren guztia eskuratu nahi dute, eta alderdi profe- sionalari dagokionez, gabezia handia duen herrial- dea da Txina. Langileak bai, baina ez oso profesio- nalak. Munduko gauza asko hemen egiten badira ere, akats handiak egiten dituzte, arlo askotan gai- nera. Aitortu beharra dago, bestalde, beraiegan- dik gauza asko ikas daitezkeela.

Hori bai, adibide modura jarraitu beharko liratekeen tradizio horiek galtzen ari dira pixkanaka. Gaur egun- go gazteak ez dira tradizio horiek zaintzen ari, eta galtzen ari dira. Kapitalismoa erabat errotu da, eta ohi- tura horiek galtzen ari dira.

Europan gero eta zabaldutako daude Txinan eta Korean egindako produktuak, boom fenomeno- az ere hitz egin daiteke, baina beraien bizi kalita- tea hobetu al da? Ala ez duzu halakorik nabaritu 2000. urtean lehen aldiz joan zinetetik?


Bai nabaria da beraien bizi kalitatea hobetu egin de- la, bizi kalitatea alderdi materialetik esan nahi dut.

Txinatarrentzat itxurak garrantzi handia du, gehiegizkoa kasu askotan, eta horretan aldaketa handia sumatu dut 6 urte hauetan. Adibidez, autoak. Auto kopurua ikaragarri igo da. Okerrena da gehienek ez dakitela gidatzen, behar bezala gidatzen esan nahi dut, arriskutsuak dira oso. Azken urteotan auto istripuz hildakoen tasa asko igo da. Benetan dira arriskutsuak.

Nolakoa da lan egun bat Gorkarentzat? Nola duzu antolatuta bizitza?

Oso normala da. Goizetan eta gauetan egiten dut lan, Euskal Herriko edozein jatetxetan bezala, horretan ez dago alderik.

Denbora librean kirola gustukoa dut, eta lagun batzuekin triatlloiak egiten ditugu, eta krosak ere bai. Eta, noski, lagunartean ere egoten naiz. Bertako kafetegi batera joan eta lasai egon, kontu kontari. Bidaiazte ere gustukoa dut, eta triatlloiari esker Txinako hainbat leku ezagutu dut. Parte hartzera joaten gara, eta aldi berean, toki berriak ezagutu eta ondo pasatzen dugu. Ikusten duzuen bezala ez dut ezer berezirik egiten, edozein tokitan bezala egunerokoa errutina bihurtzen da, baina hau gustukoa dut.



Argi geratu da korrika egiteari ez diozula utzi. Han korrika zaleak al dira?

Ez da jende asko ikusten egunero korrika egiten. Egia esan korrika egitera ateratzen naizenean batzuek "martzianotzat" hartzen naute, baina egia da lasterketaren bat antolatzen denean, jendea urrutitik etortzen dela; eta maila ona duen jendea da, ez uste makalak direnik.

Asiarrak oraindik ere arrotzak dira guretzat, beraien kultura urrutikoa, oso urrutikoa ikusten da oraindik, horrenbesteko aldea al dago beraien artean? Adibidez, zu Txinan bizi zara, baina japoniarrak gertu dituzu, lagun bezala esan nahi dut, oso diferenteak al dira?

Kontatzen hasiz gero, ez nuke sekula bukatuko, beltza eta zuria bezalakoak direla esatearekin nahikoa da. Nire esperientziaren arabera, japoniar batekin fida zaitezke, baina txinatar batekin... ez da erraza. Lagun batek kontatutakoa kontatuko dizuet adibide modura: "-Txinatar eta japoniar bat elkarren aurka. Txinatarrak irabazten du. -2 txinatar 2 japoniarren aurka, berdinketa. -3 txinatar 3 japoniarren aurka, japoniarrak garaile". Tontakeria dirudi baina adibide honek argi uzten du txinatarrek ez direla inorekin fidatzen, ezta bere taldekideekin ere, eta kasu gehiago egiten diotela japoniarrak egingo dutenari bere talde lanari baino. Ez dira inorekin fidatzen, ezta txinatarren artean ere. Horrela da.

Txinatarren inguruan bizitako batek baino gehiagok esan izan dit "ia ezinezkoa da txinatar bat lagun izatea", egia al da?

Ez da erraza txinatar bat lagun izaten, esan bezala ez direlako inorekin fidatzen, eta izateko modu horrekin zaila da lagunik egitea. Hala ere, badira lagun gisa hartu daitezkeen gutxi batzuk, eta nik baditut batzuk. Baina, ez zaio ez arrazoirik falta hori esan dizunari. Txinan eta Txinatik kanpo oso itxiak dira, oro har.

Hizkuntza oztopo handia al da? Honezkero ulertuko duzu ez? Eta hitz egin?

Oso zaila da, eta ikasten ez baduzu ez duzu ezer ulertzen. Nik ulertu gutxi, kostata eguneroko gauzak egiteko moldatzen naiz, eta jatetxean ere, baina oso gutxi, oso hizkuntza zaila da hitz egiteko eta zer esanik ez irakurtzeko. Baina tira, moldatzen naiz.

Gaur egun euskaldun gazte bat baino gehiago ari da txinera ikasten, enpresa munduan etorkizuna bertan omen dago-eta? Zer gomendatuko zenieke zuk?

Niri zaila iruditzen zait, egia esan, hitz batek lau tonu edo azentu dituelako eta azentu bakoitza gauza bat da, ez du bata bestearekin zerikusik. Hizkuntza honetan mintzatzeko ordu asko behar dira, eta irakurtzeko beste hizkuntza bat da. Beraz, bi hizkuntza ikastea bezala da, eta oso zailak dira biak. Egia da, gaur egun atzerriar enpresek batez ere, txinatar hizkuntza menderatzen duten atzerriarrak behar dituzte. Lehen esan dut profesional gutxi dagoela Txinan, beraz, ez direla oso fidatzekoak, beti behar da norbait beraien ondoan beren lana gainbegiratzeko, eta egia da jende hau asko kotizatzen dela Txinak gaur egun eskaintzen duen aukerengatik.

Zu behintzat gustura zaude, ondo hartu zaituzte bi alditan?

Kontatutako guztia irakurri ondoren harritu ere egingo zara, baina, bai, gustura nago. Honezkero eza-



gutzen ditut, badakit nolakoak diren eta nola jokatu; noraino iritsi naitekeen esan nahi dut, eta orain, bai, oso gustura nago.



Egia esan gaur egun gero eta euskaldun gehiago dago Txinan, euskal enpresa asko joan direlako lanera, ba al duzu harremanik euskaldun horiekin? Euskal Etxeren bat ere ireki dute, ezta? Harremana bakarrarekin dut, bera ere Da-Lianen dago; argazki master bat egiten ari da unibertsitatearen bidez. Bestela, hemen, Da-Lianen, bakarrak gara mutil hori eta ni. Bai, badakit Shanghai Euskal Etxea ireki dutela, baina ez dut bertara joateko aukerarik izan. Shanghai inguruan bildu dira Euskal Herriatik etorritako enpresa gehienak, eta horregatik ireki dute bertan Euskal Etxea. Pekinen ere bada euskal enpresarik eta beste probintzietan gutxi batzuk ere ba omen daude, baina ez dut batera harremanik, Txina oso handia da.

Gogoratzen al duzu lehenengo astea?

Nire lehenengo astea oso ondo gogoratzen dut, uztaila bukaera zen, bero izugarria zegoen Pekinen, eta lehen aldia nuen Txinan. Edonorentzat bezala, dena berria, eta sekula egon gabea 12 miloi biztanleko hiri batean. Lehenengo asteen hain famatua zen Pekin ikusteko aukera izan nuen, gainera ikusteko noski. Izan nuen, bai, Pekin ondo ezagutzeko aukera, esan liteke goitik behera arakatu nuela, bi urtez bertan bizitzeak Pekin ondo ezagutzeko aukera ematen du. Baina lehenengo egun haietatik batez ere usaina dut gogoan. Janaria toki eta txoko guzietan, trafikoa, zer esanik ez. Gaur eguneko askoz ere handiagoa da, baina orduan ere ez zen makala. Hizkuntza hain arrotza... egia esan guztiak harritzen zaitu.

Zerk harritu zintuen gehien?

Jutoien kaleak. Jutoiak txinatarraren etxe tipikoak dira, eta haien inguruan zegoen bizimodua, kale nagusienetatik aparte daude, eta beste mundu bat da. Benetako Pekingo bizimodua geroz eta eskasagoa da.



Eta faltan, zer bota zenuen faltan? Gaur ere berdin pentsatzen al duzu?

Faltan gauza ugari hemen egonda, baina Euskal Herrian egonda ere berdin gertatzen da Txinako gauzekin, sekula ez gaude gustura duginarekin.

Ba la duzu Hernanin eta Euskal Herrian gertatzen denaren berri?

Bai, familiarekin eta lagunekin internet bidez dut harremana, eta askotan, Hernaniko Kronika irakurtzen dut. Internetek aukera asko ematen ditu gaur egun.

Nola izan zenuen ETAre su-eten iraunkorraren berri?

Egia esan bitxia izan zen. Hemen ez dut egunkaria erosteko ohiturarik, nahiz eta badauden edizio ingelesak. Kasualitatez, egun horietan Koreara joan behar nuen, eta hegazkinean eman zidaten egunkarian ETa su-etena iragarri zuela irakurri nuen ingelesez. Gero, etxekoekin hitz egin nuenean hitz egin genuen horri buruz. Baina, bai, kasualitateak halakoxeak dira, bestela, pentsatzen dut etxekoek e-mail bat bidaliko zidatela kontatzeko.

Hangoek ez dute, noski, gure berri izango, ezta?

Txinatarrek ez, ez dakite nor garen; japoniarrek, al-diz, badute zerbaiten berri, ezta gehiegi ere, baina zerbait bai.

Esan dugu sukaldari lanetan ari zarela, atzerriko jatetxe batean, Euskal Herriko platerak egiten dituzu? Ba al dute arrakastarik?

Ezan genezake baietz, jendeak gustukoak dituela, eta Da-Lianen, gainera, ez dago atzerriko jatetxe asko. Baina, bai, etortzen direnak behintzat gustura irteten dira.

Zer eratako jendea joaten da? Zer plater gustatzen zaie gehien?

Beno, joaten diren gehienak gaur egun japoniarrak dira, eta atzeritarrak. Txinatarrak ere geroz eta gehia-

go, zeren eta herriaren garapenarekin geroz eta diru gehiago dute eta gustukoa dute beste herrialdeetako jakiak dastatzea. Hemen ere, Euskal Herrian bezala, ohitura handia dago gauzak konpondu, hitz egin, desegin... mahai baten inguruan egiteko. Oso bazkari eta afari zaleak dira, edozer gauzatarako.

Hitz egin dezagun Txinako sukaldaritzari buruz. Guk ezagutzen dugun "rollito de primavera" eta "arroz tres delicias" plateretatik oso urrun al dago?

Ez dute zerikusirik Euskal Herrian dauden jatetxe txinatarrak eta hemen daudenak. Jaki ugari egiten dituzte eta guztiak ezberdinak, aukera handia dute jakietan. Txina handia da, 5000 urteko historia du eta oso garrantzitsua da janaria. Denetik egin eta dastatzea gustatzen zaie. Izugarria da, hainbat kultura nahasten dira gainera, oso sukaldaritza aberatsa dute.

Arroza da oinarria ala nahastuta gaude horretan ere? Hemen guk ezagutzen dugun txinatar sukaldaritza koipetsua da oso, hala al da?

Arrozari dagokionez egia da oinarritzkoa dela, baina Txinan, lekuaren arabera, garrantzia handiagoa edo txikiagoa du arrozak. Hemen Da-Lianen ez hainbeste; itsaskiak dira oinarria Da-Lianen eta baita arraina ere. Baina, oro har, arroza dute oinarri. Koipeari buruz, ez da egia dena koipetsua

denik, plateraren arabera da, batzuk bai besteak ez hainbeste, baina orokorrean ez dira koipetsuak.

Zer erakutsi dizu txinatar sukaldaritzak?

Gauza asko bai, baina ez nahi adina; ez da erraza txinatar batek atzeritar bati bere sukaldaritza erakustea. Orain arte sekretu asko egon da errezetei buruz eta horrek esan nahi du ez zizutela gauzak erraz erakusten. Hala ere, oraindik ez dut itxaropenik galdu, eta gauza gehiago ikastea espero dut.

Hemen, Euskal Herrian, jateak eta gastronomiak garrantzia handia dute, han guk ematen diogun adina garrantzia ematen al diote?

Bai, beste era batera ulertzen dute eta beste gustu batzuk dituzte, baina, dudarik gabe, garrantzi handia du jateak txinatarren bizimoduan.

Euskal Herrian sukaldaritzan izen ospetsu asko dago, Txinan ere izen handiko sukaldariak al daukete? Nor?

Hemen ere badira izen handiko sukaldariak baina txinatar sukaldaria ez dabil munduko kritikoen ahotan. Oraindik ez da inor sartu sukaldari famatuaren munduan. Adituek diote inspirazio eta teknika berriak txinatar sukaldetik aterata eta gure sukaldaritzara egokitu daitezkeela. Gaur egun badira zenbait sukaldari ospetsu egiten hasi direnak.

Euskal sukaldaritzarekin konparatuta, alde handia al dago?

Bai, elkarren oso desberdinak dira. Gauza batzuk hobeak ikusten ditut hemengo sukaldaritzan, eta beste batzuk, berriz, gureak nahiago.

Zer ez da sekula falta Txinako sukalde batean? (hemen tipula, baratxuria...)

Txinan ere oso oinarritzkoa da, baina gauza guztiak bezala, Txinako probintziaren arabera aldatu egiten da, adibidez, Sichuanen pikantea da oinarri oinarritzkoa, Shanghain azukrea asko erabiltzen dute... eta horrela zerrenda amaiezina izango litzake. Ez dago gauza bat edo bi esaterik.

Zuk eraman al duzu euskal sukaldaritzatik zerbait?

Beni hemen saiatzen gara hemen lor ditzakegun osagaiekin sukaldaria egiten, eta ez da erraza, ez baita Euskal Herrian bezala, hemen kosta egiten da, osagaiak lortzea zaila da. Esate baterako, gazta aukera oso txikia da. Da-Lianen txokolatea, kafea, oliba olio... aurki litezke, baina garesti, eta kostuak broma badirudi ere, ohituta gaudena baino hiru aldiz gehiago balio dute osagai horiek.

Ez dakit zerbait berezirik egin ote diezun, gus-tuko al dute?

Beni janari aldetik badira plater batzuk besteak baino gehiago ateratzen direnak. Esate baterako, erreboiloa parillan edota guk egiten ditugun etxeko txorizoak. Gero postreak ere haintzat berriak dira, tartaren mundu hau. Gustura ateratzen dira bai.





Gurean edariak, ardoak batik bat, garrantzi handia du, esan liteke otorduaren atal garrantzitsuenetakoa dela, gauza bera gertatzen al da Txinan? Ez, hemen beste era batera dira gauzak, atzerritarrek eta japoniarrek badute ohitura, baina txinatarrontzat berria da, eta gehienetan, garagardoa edaten dute, nahiz eta gero eta ohitura handiago duten. Harritzekoa den beste gauza bat da txinatarrak kafea haragiarekin jateko eskatzen dutela. Kontzeptu batzuk desberdinak dituzte, argi dago ez direla gureak bezalakoak.

Zer edaten dute?


Esan bezala garagardoa, zukuak, freskagarriak eta nola ez tea.

Hasieratik esaten ari gara txinatarrak indartsu sartzen ari direla gure inguruan. Pentsatu al duzu txinatar jatetxeren bat irekitzea Euskal Herrian, bi kulturak uztartuz? (Hondarribian japoniar batek ireki du euskal-japoniar jatetxea eta kontentu omen dago)

Jatetxearena ez da erraza, baina bai esperientzia onetatik gauza asko atera daitezke, eta gure sukaldaritzarekin batera gauza interesgarri asko egin liteke. Gure lanbide honetan denak balio du, gero probatzea da eta onenarekin edota gustukoa duzunarekin geratzea da kontua.

Zer esango zenioke zuk Txinara lanera joan nahi duen edonori?

Nik animatuko nuke; ez da lana bakarrik, bertako



bizimoduak asko erakusten dizu, nahiz eta bidean traba ugari aurkitu, merezi du. Nik aukera izanez gero etortzeko gomendatuko nieke.

Eta bidaia zalea denari zer esango zenioke Txinari buruz, merezi duela joateak? Gomendioren bat?

Merezi du, eta aukera izanez gero, nahiz eta urruti egon, denbora hartu eta hilabete pasatzeko oso herrialde bitxia da. Ez da erraza, baina, askotan, bidaia antolatuetan etortzen da jendea, eta dena azkarregi ikusten dute, nekatuta bukatzen dute, hainbeste monumentu eta harri ikusi eta azkeneko bi egunetan erosketak tope egin ondoren. Nik esango nieke bertako bizimodua gehiago ezagutzeko, kaleetako bizimodua oso bitxia dela eta hori ikusi behar dela. Eguneroko merkatuak bisitatu, nola erosten duten, tratuak nola egiten dituzten... Nahiz eta denbora gehiago behar, merezi du; noski, txinatarraren tenpluak eta harrizko harresia bazterrera utzi gabe.

Gorka, maiatzean 33 urte bete zenitun, eta zuk esana da "Egia da kanpoan nagoenean Euskal Herria dudala gogoan, baina badakit ez dela betirako izango", noizko buelta?

Hori da ni nire buruari egiten diodan galdera. Egia esan gustura nago, baina ez da betirako. Nik uste dut dena ondo joanez gero, beste 2 edo 3 urte egingo ditudala hemen. Gero, ikusiko dut zer egin, Euskal Herrira itzuli edo zer egin. Baina, bai, faltan botatzen dut Euskal Herria.